




EAEko esportazioak %4,5 handitu ziren apirilean

Atzerrira esportatutako ondasunak
Urte bakoitzeko urtariletik apirilera. Milioikoak




Iturria: Eustat.

Aurtengo apirilean, EAEko esportazioak %4,5 areagotu ziren aurreko urteko hil beraren aldean, produktu energetikoen igoerari esker (%57,3). Energiaz bestelako produktuen esportazioak, berriz, %1,7 hazi ziren. Zifra absolutuetan, aurtengo lehen lau hilekoen batuketara 10.298 milioi eurokoa izan zen, 2024ko aldi berean jasotakoa baino %2,3 gehiago.

Industriaren prezioak jaitsi ziren maiatzean

Industria prezioen indizea (IPRI)
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu duenez, **Euskadiko industria prezioak %2,0 jaitsi ziren 2024ko maiatzarekin alderatuta**. Hala, IPRIaren urte arteko aldakuntza tasa balio negatiboetan kokatu da berriro, lehen hiruhilekoan hazkundera berreskuratu ondoren. Merkatzea energiaren prezioak (-%9,9) eta, neurri txikiagoan, ekipamendurako ondasunenak jaitsi direlako (-%1,8) gertatu da.



Azalera handietako salmentak %2,5 areagotu ziren

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko maiatza. Indizea



Iturria: Eustat.

Maiatzean, azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %2,5 areagotu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean. Gehikuntza hori elikaduraren atalean (%2,5) eta gainerako produktuetan (%2,3) gauzatu zen. Era berean, enplegua erritmo onean sortzen jarraitu zen, langileen kopurua %3,4 igo baitzen.

Txikizkako merkataritzak %5,6 handitu zuen salmenta

Txikizkako merkataritza EAEn
Urte bakoitzeko maiatza. Indizea



Iturria: INE

INEk argitaratutako informazioaren arabera, maiatzean EAEko txikizkako merkataritzaren salmentak %5,6 igo ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean. Hala-ber, igoera horrekin batera, enpleguan %0,7ko hobekuntza txiki bat izan zen.